



## ESKUALDE OSOA ERE TXANTXOA SOINEAN

Tolosan ezezik, eskualdeko ikastetxeetako ikasleek ere ospatu dituzte Inauteriak; gaur ere izango dira jaialdiak > 3

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Ostirala  
2009-02-20

VIIURTEA 1.634.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA



WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

# GORA INAUTERIAK!

**TOLOSA** Kabi-Alai elkartekoen itxurazko korporazioak txupinazoa botatzearekin lehertu da festa handia

**GAUR** Ostiral Mehe eguneko danborradak eta Arpegi taldearen jaialdiak osatuko dute gaurko egitaraua 4-5-6-7



Ehunka lagun bildu ziren atzo eguerdian, Plaza Zaharrean, txupinazoaren unea gertutik ikusteko. Hau botatzearekin hasi zen zoramena guztientzat. REBEKA CALVO



**Otsailak 21**

Irekita, Sarrera doan, Pub Muxu  
DJ Julen

**Otsailak 28**

**SU TA GAR** EN KONTZERTU HANDIA

- SALMENTA PUNTUAK:
- Zunbeltz musika denda (Tolosa)
  - Peritza taberna (Leitza)
  - Leku ona taberna (Etxarri -Aranatz)
  - Ilargi taberna (Lekunberri)
  - tic-tac ticket web orrian

SARREREN PREZIOA: Aurretik 12€ eta leihatilan 15€

[www.salamuxu.com](http://www.salamuxu.com)

Sala muxu • Albisualdea industrialdea 31 zkia. • LEKUNBERRI



## A Argazki zaharra



## Kabi Alai elkarteak ere 75 urte aurten

**TOLOSA** ■ Kabi Alai elkarteak ere 75 urte bete ditu aurten. Inauterietan izena hartu du elkarte honek, besteak beste, festaren hasiera iragartzen duen txupinazoaren pregoia irakurtzeko ardura dutelako. Hain zuzen ere, urrezko ezteiak bete zituztenean, duela 25 urte, egin zuten pregoia lehen aldiz eta lan hau egiten 23 urte daramatzate elkarteak kide batzuk. Kabi Alai elkartearen txarangak ere protagonismo berezia du txupinazoaren unean. Halaber, karrozak ere ateratzen ditu elkarteak. Iru-dietan, 50. hamarkadako 80ko Kabi Alaiako txarangak. **HITZA**



## » ABESTIA

### Baratzeko pikuak

Baratzeko pikuak  
hiru txurten ditu  
Baratzeko pikuak  
hiru txurten ditu  
Neska mutil zaleak  
Neska mutil zaleak  
Ankak arin ditu  
Ankak arin ditu  
Ankak arin ditu.  
Ai, ene! Nik ere nai nuke  
Oi, ene! Zuk nai bazenduke.  
Ai, ene! Nik ere nai nuke  
Oi, ene! Zuk nai bazenduke.  
Ankak arinak eta  
burua arinago  
Dantzan obeto daki  
Dantzan obeto daki  
Artajorran baino  
Artajorran baino  
Artajorran baino.  
(Herrikoia)

## » GAUR ZER?

- **12:00.** Ozenki Txistulari taldearen kalejira.
- **16:30.** Zezen Plazan xexen-festa, Kabi-Alai txarangak alaituta. Ondoren, kalejira egingo dute.
- **22:45.** Arpegi Taldeak antolatuta, Ostiral Mehe eguneko jaialdia Leidor aretoan.
- **23:00.** Ostiral Mehe eguneko danborrada.

**Tolosa** » Inde Kitxenekoak aurkitu nahi dituenak, gaur 22:30ak inguruan Txosnagunera agertzea besterik ez du.

# «Tolosako Inauterietan, tolosarren umore guztia astebetean biltzen da»

**INDE KITXEN (IÑIGO, ARATZ, ANDER ETA ROMAN)** » Inauterizalea

## ESTI EZEIZA

Inauterien aurreko egunak Otsabi elkarteak sukaldetan sartuta daramatzate Inde Kitxen taldekoek. Izan ere, gaur, Txosna Batzordeak antolatutako egitarauaren baitan, Trifulka eta Laketekin batera kontzertua eskainiko dute 22:30etik aurrera. Gehienak tolosarrak diren horretan txikitatik bizi dituzte Inauteriak, Iñigo (bateria), Aratz (gitarra eta kora), Ander (baxua) eta Romanek (gitarra eta ahotsa).

### Zer dira zuentzat Inauteriak?

**Ander:** Urte guztiko egunerokotasuna alde batera uzteko aukera ezin hobea.

**Aratz:** Ohitura handiko festak Tolosan eta, urteen poderioz, zailtasunak-zailtasun tolosarrok izugarri gozatzen ditugun festak, ondo pasatzekoak.

**Inde Kitxen taldeko kideak non aurki daitezke Inauterietan?**

**Iñigo:** Txosna, taberna, eta etxeko ohean.

**Roman:** Ostiralean, gauerdik alde-erako, txosnatan ibiliko gara. Aste-



HITZA

lenitan San Bernardo Taldekoekin dantzan. Bestelako egunetan, nonahi.

**Zer da Inauterietatik gehien gustatzen zaizuena?**

**Aratz:** Gauza asko, herriko iskin guztietan dagoen giroa oro har.

**Iñigo:** Giro paregabea.

**Eta gutxien?**

**Ander:** Hausterre egun madarikatua.

**Roman:** Ba aurten, esaterako, egongo diren herri lanak. Baina tira, zikinkerari ere bidea egin behar zaio...

**Zein mozorro aukeratu zenukete?**

**Aratz:** Makarrarena.

**Roman:** Camaron De la Isla-rena. **Hausterre egunean zer?**

**Iñigo:** Lanera...

**Ander:** Lanera buruan txaranga eta guzti.

**Inde Kitxen-ekoek zer eskainiko diete Inauterietan?**

**Iñigo:** Kontzertu mundiala! Etorri!

## » MOTZ-MOTZEAN

- **Ostegun Gizena.** Emozioa.
- **Ostiral Mehea.** Inde Kitxen!
- **Zaldunita Bezpera.** Giriak mozorrotuta.
- **Zaldunita.** Terrible...
- **Astelenita.** Dantza, dantza... eta dantza
- **Asteartita.** Azken indarrak eta xoxak xahutzera.
- **Edari bat.** Birra.
- **Gaua edo eguna.** Biak.
- **Kalea edo taberna.** Txosnak.

**Aratz:** Giro paregabea eta sorpresa ugari... ezin dut gehiago esan. **Zer dute Tolosako Inauterietan besteek ez dutenik?**

**Roman:** Tolosarren umore guztia astebetean bildua.

**Iñigo:** Giroa eta originaltasuna. **Musikari zarenetik gehiago ligatzen al duzue Inauterietan?**

**Ander:** Bai, izugarri.

**Aratz:** Noski, gauero.

**Roman:** Neskak gainetik kendu ezinik ditugu!

**Iñigo:** Baaaaaaaiiii...



# Ostegun Gizeneko mozorrotu txikiak



Villabonako plazan Fleming eskola eta Jesusen Bihotza ikastolakoek emanaldia eskaini zuten. A. IMAZ



Laskorain ikastolakoek Ostegun Gizeneko festarako 'Pan, parran, pan Laskorain danborradan' leloa aukeratu dute. HITZA



Anoetako ikasleak herenegun, kiroldegian bonberoz jantzi ziren, dantza eta guzti eginez. IMANOL GARCIA



Abaltzisketako bikingoek herria konkistatu zuten. N. U.



Bidegoangoek kalejira egin zuten: frontoian emanaldia eskaini zuten. HITZA



Ikaztegietaoek mailaz maila, munduko hainbat lurralde gonbidatu zituzten. N. U.



Ibarrako Uzturpe Ikastolakoak mozorroturik kalejiran jeitsi ziren herriko plazara. ASIER IMAZ



Berrobin deabrutxo talde bat ere irten zen eskolako patiora. A. IMAZ



Alkizan hamaiketakoaren ondoren jolasak egin zituzten. N. URBIZU



Albizturren piratek altxorra aurkitu zuten. ESTIEZEIZA



# FESTAK HARTU DU TOLOSA

**Tolosa** » Kabi-Alai elkarteek 25. aldiz botatako txupinazoarekin eta 'Ostegun Gizen' doinuekin hasi dira aurtengo inauteriak.

**IGAMIA E EDIZIA**

Txupinazoaren entzutearekin batera, Kabi-Alai txarangak Ostegun Gizen doina hasi zen jotzen eta ordutxe leheritu zen festa. Plaza Zaharrean bildutako jendeketa berehala hasi zen dantzaz, zenituk konfletia erortzen zen bitartean.

Aurten 25. urte hauetan Kabi-Alai elkartearen korporazioak

bota da txupinazo. Udaletxearen bildutakoek zuzonak abestu zieten, elkarre beroko txarangak lagunduta. Eta urte guzti horietan aritu direnek, pregoia irakurri aurretik, gaitze jendeketa parte-hartzea eskatu zuten.

Pregoiaren itxurazko korporazioak adierazi zuen kolektorearen obek utzitako zulo ikaragarriaren

ondorioz, metro-jarridok dutela hitz zehar bidaltzeko. Zeezuek ere To.Pic-en atarian izango dute irteera. Bestalde, iragarri zuten, datorren urteko aurrea, beste bat izango dela txupinaz botako duena.

**Ostegun Gizona**

Kabi-Alai urteurrena ospatzeko, hainbat herrikuntza egin ditu aurtengoan. Estera, txarangakoen jantziak aldatu dituzte. Baita zailak izan diren gabe, sorpresa handiena Ostegun Gizona pertsonalia sortzearen izan zen. Txerri boti da hau, eta zaintrazki eta guri, kalestratz

barrena ibili zen atzo bere eguna ospatzeko.

Astean zehar herritarrek baldakoiak, elkarrekin, denak apainduen joan dira. Denak txupinazoaren entzuteko zain, urteko festarik bereziaz gozatzeko. Bada, festa, inauteriek, hartu dute Tolosa. Lehenengo eguna igaro ondoren, beste bost egun gelditzen dira.

**Txosnagunaren ere jala hasi da**

Urtero legez, txupinazoaren ostean Kabi-Alai txarangak ireki zuen bidai eta atzetik joan zen jendeketa Ostegun Gizeneko doinuekin dant

zatzuz. Beraienkin batera izan ziren Alde Zaharra alaitzen Pintxana txarangak.

Txosnagunaren berriz, ez zen txupinazotik bota, baina 12.000 euroko ireki zituzten karpako atek eta zabali, geratu zen gunea. Hor ere txistorra jantziak izan ziren protagonista. Etzizako, hau da, Zaldunitea egunerako deialdia egin dute, eskualdeko presoi bidaltze-ko argapaka atzerako biltutako koadrilak 1900etan Txosnagunaren. Eki-menaren antolatzaileek ko adirila guztiak deli egin dute, bertara ager daitezkeen eskatuz.



Kabi-Alaiak pregoiari eman zieten hasiera atzo Inauterietan. NICOLA LAFABEU



Aurten, 25. urteurrena ospatzeko, Ostegun Gizona pertsonalia sortu dute. N.L.



Txistor pintxo ugari banatu ziren atzo goizean jende artean. Txosnagunaren ere 12.000 euroko ireki hasi zen jala. JESSICA CAVIDO, N. LAFABEU



Txupinazo bota ostean Kabi-Alai txarangak. Ostegun Gizeneko doina jotzen hasi ziren; beraienkin batera ibili ziren kaleetan Pintxanakoak. ANSO TORRALBA



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



Hunka ume biltzen dira urtero larunbateko danborradan. HITZA

Aurtengo Inauterietan hainbat aldaketa barneratu dituzte; alde batetik, kolektorearen lanak direla eta, karroza eta konpartsen ibilbidea aldatu egin dute; bestetik Zaldunita Bezperako danborrada arratsaldera aurreratu dute, 19:00etan aterako direlarik.

## Aldaketak danborradan eta ibilbidean

### ERREDAKZIOA

**M**akina bat aldiz entzun dugu Tolosako Inauteriek gaindi ezinak direla. Ez dutela berrikuntzaren beharrik. Urtero arrakastatsuak izaten direla. Aurtengoan, ordea, hainbat aldaketa barneratu behar izan dituzte, Tolosako zonalde askori eragiten dien kolektorearen lanak direla eta. Hala, eta aurreko hilabeteetan bilera ugari egin ostean, karroza, konpartsa eta aisialdi taldeen ibilbidearentzat irtenbide bat bilatu dute.

Hain zuzen ere, San Frantzisko ibilbidea, Foruen etorbidea, Nafarroa etorbidea eta Oria kalea zeharkatuzko karrozak eta konpartsek, Zaldunitan eta Asteartitan.

Astelenitan ere, aisialdi taldeen egunean, dantzatzeko ibilbide berbera egingo dute, hau da, San Frantzisko ibilbidea, Foruen etorbidea, Nafarroa etorbidea eta Oria kaleen artean ariko dira dantzan. Egun honetan, bestalde, hiru karroza aterako dira. Hauek Rondilla kaletik abiatuko dira, Gernikako arbola aldera.

### Zaldunita Bezperan, haurrak eta helduak

Esan bezala, aurtengoa Inauterietan hainbat aldaketekin datoz. Ibilbidearen aldaketekin batera, Zaldunita Bezperako danborradaren ordutegiarena ere etorri da. Arratsaldean, urtero bezala, Aiz-Orratz Veleta elkarteak antolatzen duen haurren danborrada izango da he-

rriko kaleetan. Aurten, gainera, elkarteak 75 urte bete ditu eta euren berbera egingo dute, berezia izango da. Haurrek, helduei emango diote lekukoa.


Hain zuzen ere, 19:00etan irten-go dira helduak. Izan ere, iazko Inauterien balantzea egiteko garaian, Jai Batzordeak atera zuen ondorioetako bat izan zen, gero eta jende gutxiago biltzen zela ordura arte, gauz egiten zen danborrada ikustera. Gainera, aipatzekoa da, ekitaldi hau dela Inauterien etorrera iragartzen duena. Horregatik, ohitura hau galtzen ez uztearren, aurten, aldatzea erabaki dute, eta arratsaldera pasatzea.

Triangulo plazan elkartuko dira danborradan parte hartuko duten elkarteak, eta handik abiatuko dira ohiko ibilbidea egiteko. Aldaketa honekin, jende gehiago biltzea espero dute.

### Gaeen ere danbor hotsak

Dena den, gauz ateratzearen ohitura ez da erabat galduko. Berazubi elkarteko kideetako batzuek arratsaldez atera ezin dutenez, beti bezala gauz irtetea erabaki baitute.

Ordutegi eta ibilbide finkoa ere zehaztu dute dagoeneko. Hala, 22:15ean Berazubi auzotik abiatuko dira. San Frantzisko aldera bideratuko dira hemendik. Jarraian Trianguloan elkartuko dira eta



Aurtengo ibilbidean aldaketak izango dira. HITZA

pieza pare bat joko dituzte bertan. Ondoren, Alde Zaharrera abiatuko da danborrada, eta Plaza Berriaino helduko dira. Bertan bigarren geldialdia egin eta hainbat pieza joko dituzte bertan. Hemendik berriro Berazubi aldera bueltatuko dira. Eguraldi txarra egingo

balu, bigarren geldialdia Berdura plazan egingo dutela jakinarazi dute elkartetik.

Beraiekin batera izango dira Konpainia Ingelesekoak. Hala, arratsaldez eta gauz entzun ahal izango dira danbor soinuak hirian.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



# Hamaiketakoa eginaz hasi dituzte elkarteek Tolosako Inauteriak

**Elkarteak** » Txupinazorako ordu gutxi falta zirela egon ginea herriko hainbat elkartetan; gehienek bertan ematen dituzte Inauterietako egunak.

## ESTI EZEIZA-REBEKA CALVO

Elkarteetan giro lasaia zegoen atzo goizean. Txupinazorako ordu batzuk falta zirela iritsi ginen eta Kabi Alai kenduta -bertan Elkartearen *Itxurazko Korporazioak* txupina botatzen duenaren 25. urteurrena ospatzen zuten mugimendu handiagoa zegoen-, gainontzeko-etan hamaiketako lasaia egiten ari ziren. «Motorrak berotzen» besterik ez zirela hasi esan ziguten, izan ere Inauterietan elkarteetan ematen dute eguna; «hemen biltzen gara bazkaltzeko, afaltzeko, hamaiketako egiteko...», esan ziguten.

Ero-Etxe Elkarteetan azken 22 urtetan egiten dute Ostegun Gizeneko hamaiketako; «Beratik eta Lasartetik ere lagunak etortzen zaizkigu. Hemen bildu, hamaiketako egin eta txupinazora joaten gara. Ondoren bazkaria egiten dugu, 12 bat pertsonak edo, baina eguneko hitzordua gauean dago: afarian. 88 bat lagun bilduko gara

eta ondoren txarangarekin aterako gara kalera», esan ziguten.

Aurrera Kirol Elkarteetan ere hamaiketako eginaz hasi zituzten Inauteriak. Bertan 15 bat lagun bildu ziren eta bazkarian jende asko bildu ez bazen ere, afarian «lagun» asko izan ziren elkarteetan. «Bazkaria aurretik prestatzen dugu, gero kaleetan ibiltzen gara eta ondoren, 70 bat lagun biltzen gara afaltzeko. Bukatzerakoan danborra ere aterako da hemendik», esan ziguten.

Gure Kaiola Elkarteetan ere afaria egiten dute Ostegun Gizeneko bazkaltzera gaztetxoak, kideen seme-alabak, gonbidatu ohi dituzte, baina afaltzera kideak bakarrik joaten dira. Astelenitan, gainera, fanfarrea ateratzen omen dute urterot. «Oso giro polita izaten dugu Inauterietan elkarteetan. Gipuzkoako bigarren elkarerik zaharrena gara, 1927. urtean sortua, eta orain geroz eta gazte gehiago etortzen da. Elkarteak bizi egin behar dugu,

bestela ez du mereri kide izatea, eta Inauterietan aukera aparta dugu bizitzeko», esan zuten.

## Kabi Alain, giro nahastua

Kabi Alain, aldiz, giroa nahastu xamarraren zegoen atzo goizean. Hamaiketako goiz samar egin zuten, bertatik ateratzen baita Txupinazoko *Itxurazko Korporazioa*, eta dena garaiz prest izateko beharrezkoa zen goiz samar dena lotzea.

Txupinazoa eta gero kalejiran ateratzen dira urtero, baita atzokoa ere, eta bazkari «sinplea» egin eta gero zenezetara joaten dira beti. «Gero elkarte bezala afaria egin ohi dugu, 1994. urtean egingunean lehen aldiz. Zaldunitan eta Astelenitan ere ateratzen gara».

Atzokoa bisitatutako azken elkarte Txinparta izan zen. Bertan, ere hamaiketako egiten ari ziren eta txupinazioaren ondotik bazkaltzeko asmoa ere bazuten, hori bai, afaria izaten da nagusi bertan, baita asteleheneko bazkaria ere. «Andoni Egaña bertsolaria ere urtero etortzen da afaltzera eta giro benetan atsegina izaten dugu», esan ziguten.



Kabi Alain umore ona zen nagusi, lan asko bazuten ere. R. CALVO



Aurrera Kirol Elkarteetan ere hamaiketako eginda tertulian ari ziren. R. CALVO



Gure Kaiolan txistorraz gain beste jaki batzuk ere prestatu zituzten. R. CALVO



Txinpartan indarberitu eta txarangekin dantzatzera joatekoak ziren. R. CALVO



Gure Kaiola Elkarteetan ezin txistorra falta hamaiketako eder bat egiteko. R. CALVO



Ero Etxen ere lagun taldea bildu eta hamaiketako egin zuten, ondoren bazkaria eta afaria ere egin zituzten. R. CALVO

**@ Inauteriak.** TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN web gunean Inauterietan azken berriak izango dituzue eskura. Era berean, argazkiak eta bideoak ikusteko aukera ere izango duzue. Zuen iritziaz ere jaso nahi ditugu eta horretarako inkesta, eztabaida eta *Zurea da Hitza* sailak dituzue web gunean:

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Irene: 638 944 604 edo 695 708 271 telefonoetara.



9°  
2°

GOIZA	EGUZKIA
ARRATS.	EGUZKIA
BEROENA	10°
HOTZENA	2°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitateak:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**


## A Agurrak



**Sagardotegia.** Jaiak bai, borroka ere bai. Zatozte presoen aldeko sagardotegira.



**Urte askoan!**  
**Amair Tejeria Larrarte.** Gaur urtebete. Zoriona aita, ama, Axier, June eta Manexen partetik.



**Urte askoan!**  
**Haritz Martin Kortajarena (Zizurkil).** Gaur 10 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



**Urte askoan!**  
**Aitor Etxarren (Berastegi).** Pottoko! Gaur urtebete. Muxu handi bat etxeko guztien partetik.



## Ostegun Gizenaren pertsonaia berria

Aurtengoan Kabi Alai elkarteek osatzen duten itxurazko korporazioak 25. aldiz bota du Inauteriak iragartzen dituen txupinazoa. Urteurrena era berezian ospatu nahi izan dute Ostegun Gizenari pertsonaia berria jarri. Ostegun Gizeneko txerri berezi hau Plaza Zaharrena agertu zen lehenik txupinazoaren ostean eta, ondoren, udaletxeko balkoira igo zen tolosar guztiek ezagutu zezaten. Ondoren, herriko kaleak zeharkatuz ibili zen txarangako doinuek lagundurik. Jendeak argazkiak aterazituen pertsonaia berri honekin. Aurtengo arrakasta ikusirik, ziur datorren urtean ere agerraldia egingo duela Ostegun Gizenaren.

TERRADILLOS

## Arrautz ustelak txupinazoan, norentzat?

Azken urte hauetan txupinazoaren uean Plaza Zaharrean egoten diren hainbat gaztek udaletxeko balkoira arrautz ustelak botatzeko ohitura hartu dute. Aldarrikapen moduan egiten omen dute. Baina, txupinazoaren uean Kabi Alai elkarteak kideak eta lanean ari diren kazetari eta argazkilariek baino ez daude. Nori zuzenduta botatzen dituzte, bada, arrautz ustel hauek? Ez Kabi-Alaikoe, ezta kazetari eta argazkilariek ere ez dute hau jasan beharrik. Aldarrikapenak ere era egokian eta leku egokian egiten jakin behar da. E. EZEIZA



IBAIALDE  
ANGULAK

**Tolosako inauterietarako eskaintza berezia**

**angula kiloa 380 €**

bi arraindegi hauen eskutik dator eskaintza:

ARTOLA arraindegia • Tel.: 943 67 44 06

LOIRA arraindegia • Tel.: 943 65 00 13

fiesta on guztioi!